



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Jagoba Manterola Ruiz
Mikel Gereka Zelaia
José María Alzuri Vertiz
Carmelo Ayoroa Hualde
María Izaskun Altxu Ariztegi
Javier Bereau Miquelarena

2015eko irailaren 17an, 16:45etan, Ohiko Osoko Bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. María José Bereau Baleztena — Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel José Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. AURREKO 2 BILKURAKO AKTAK ONETSI.

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dizkion deialdiarekin batera banatu ziren aurreko 2 Bilkurako aktei. Inork ez du azalpenik egin eta aho batez onartu dira aktak.

2. OBRAK EGITEKO LIZENTZIA ESKAERAK.

F.E.A.k aurkeztutako eskaera ikusirik eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailearen 2ko 6/1990 Foru Legeko 140.2. artikuluan eta Nafarroako Toki Entitateen Ondasunen gaineko Erregelamenduaren 143. artikuluan xedatuari jarraikiz, ahobatez –arazuko quoruma- erabaki da:

1. Hasiera batean onestea 3 poligonoko 438 lurzatiko 15 metro karratu herrilurretatik desafektatzea, ondotik haren erabilera F.E.A. jaunari lagatzeko. Baldintza ekonomiko-administratiboen plegua onetsi da ere.

2. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea erabaki hau, hilabete bateko epean jendaurrean egoteko.

3. HIRIGINTZA EREDUA ETA OINARRIZKO ANTOLAMENDUA ITURENGO IPAR-MENDEBALDEKO ALDEAN. JARRAIBIDEAK ETA IRIZPIDE OROKORRAK.

B.U.k eta J. eta I.A.k sustatutako Arau Subsidiarioen aldaketa 2 espedientetan emandako txosten orokorretan (0009-OT04-2015-000003 eta 0009-OT04-2014-000043 zenbakiak) jartzen du bi espedienteak behar dutela baterako koordinazioa eta justifikazioa.

Antolaketako osotasunezko azterketa bat egitea komenigarria ikusten du Udalak, indarrean dauden Arau Subsidiarioen aldaketak bideratu ahal izateko, Arau horien ereduarekin bat datorren egiturazko antolamendu inguru batean.

Hau dela eta, aho batez erabaki da:

1. Agiri hau onestea: “Iturengo Udalaren jarraibideak eta irizpide orokorrak Iturengo ipar-mendebaldeko aldean hirigintza eredia eta oinarritzko antolamenduari buruz. Iturengo Planeamendurako Arau Subsidiarioak”.

2. Agiria jakinaraztea Nafarroako Gobernuari (Lurraldearen Antolamendua eta Hirigintzako Zerbitzua).



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

4. ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA. 2 POLIGONOKO 81, 82, 289, 920, 537, 538, 158, 288, 286, 285 ETA 284 PARTZELAK (ITUREN).

Planeamendurako Arau Subsidiarioen antolamenduko egiturazko determinazioetako aldaketa, 2 poligonoko 81, 82, 289, 920, 537, 538, 158, 288, 286, 285 eta 284 partzelei dagokiona, hasiera batean onetsi zen 2014ko irailaren 18ko Osoko Bilkuran. J.A.O. eta I.A.E. dira espedientearen sustatzaileak.

Nafarroako Gobernuak eman zuen txosten orokorra (0009-OT04-2014-000043 espedientea), onetsitako agirian zenbait puntu aldatu, argitu eta osatzeko eskatuz eta B.U.G.k sustatu zuen aldaketa espedientearekin batera koordinatu eta justifikatu behar dela adieraziz.

Aurreko puntuan onetsi da “Ituren Udalaren jarraibideak eta irizpide orokorrak Ituren ipar-mandebaldeko aldean hirigintza eredua eta oinarrizko antolamenduari buruz. Ituren Planeamendurako Arau Subsidiarioak” izeneko agiria.

Aipatutakoak ikusirik, aho batez erabaki da J.A.O. eta I.A.E.ri jakinaraztea, Planeamendurako Arau Subsidiarioen aldaketaren behin-behineko onespena lortzeko, agiri berria aurkeztu behar dutela, ondoko hauek betez:

1. Lurraldearen Antolamendua eta Hirigintzako Zerbitzuak emandako txosten orokorrak eskatzen dituen puntuak aldatu, argitu eta osatu.
2. “Ituren Udalaren jarraibideak eta irizpide orokorrak Ituren ipar-mandebaldeko aldean hirigintza eredua eta oinarrizko antolamenduari buruz. Ituren Planeamendurako Arau Subsidiarioak” izeneko agirian jarritakoa bete.

5. ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA. 2 POLIGONOKO 85 ETA 86 PARTZELAK (ITUREN).

Planeamendurako Arau Subsidiarioen antolamenduko egiturazko determinazioetako aldaketa, 2 poligonoko 85 eta 86 partzelei dagokiona, hasiera batean onetsi zen 2014ko abenduaren 17ko Osoko Bilkuran. B.U.G. da espedientearen sustatzailea.

Nafarroako Gobernuak eman zuen txosten orokorra (0009-OT04-2015-000003 espedientea), onetsitako agirian zenbait puntu aldatu, argitu eta osatzeko eskatuz eta J.A.O. eta I.A.E.k sustatu zuten aldaketa espedientearekin batera koordinatu eta justifikatu behar dela adieraziz.

Aurreko puntuan onetsi da “Ituren Udalaren jarraibideak eta irizpide orokorrak Ituren ipar-mandebaldeko aldean hirigintza eredua eta oinarrizko antolamenduari buruz. Ituren Planeamendurako Arau Subsidiarioak” izeneko agiria.

Aipatutakoak ikusirik, aho batez erabaki da B.U.G.ri jakinaraztea, Planeamendurako Arau Subsidiarioen aldaketaren behin-behineko onespena lortzeko, agiri berria aurkeztu behar duela, ondoko hauek betez:

1. Lurraldearen Antolamendua eta Hirigintzako Zerbitzuak emandako txosten orokorrak eskatzen dituen puntuak aldatu, argitu eta osatu.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

2. "Iturengo Udalaren jarraibideak eta irizpide orokorrak Iturengo iparmandebaldeko aldean hirigintza eredua eta oinarritzko antolamenduari buruz. Iturengo Planeamendurako Arau Subsidiarioak" izeneko agirian jarritakoa bete.

6. ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA. 3 POLIGONOKO 11 ETA 12 PARTZELAK (AURTITZ).

Planeamendurako Arau Subsidiarioen antolamenduko egiturazko determinazioetako aldaketa, 3 poligonoko 11 eta 12 partzei dagokiona, hasiera batean onetsi zen 2014ko irailaren 18ko Osoko Bilkuran. J.L.E.A., M.M.U. eta I.D.A. dira espedientearen sustatzaileak.

Nafarroako Gobernuak eman zuen txosten orokorra (0009-OT04-2014-000042 espedientea), onetsitako agirian zenbait puntu aldatu, argitu eta osatzeko eskatuz.

Aipatutakoak ikusirik, aho batez erabaki da sustatzaileei jakinaraztea, Planeamendurako Arau Subsidiarioen aldaketaren behin-behineko onespena lortzeko, agiri berria aurkeztu behar dutela, Lurraldearen Antolamendua eta Hirigintzako Zerbitzuak emandako txosten orokorrak eskatzen dituen puntuak aldatu, argitu eta osatuz.

7. ZENBAIT ESKAERA.

1. *Joaldunen Egunean* (irailaren 19a) Kapilla erabiltzeko baimena ematea erabaki da aho batez.

2. J.I.V.E.k baimena eskatu zuen *Abatxakarra* parajearen erori diren 3 haritz aprobetxatzeko. Aho batez erabaki da V. jaunari saltzea arbolak, basozainak egin duen balorazioko prezioan, 10,08 euro (BEZa barne).

3. Aurtizko bestetako aurrekontua aurkeztu da, 6.575 euroko gastuen zerrendarekin. Bestak antolatzeko emango den diru-laguntzaren kopuruari buruz eztabaidatu da, eta aho batez erabaki da:

- Bestak antolatzen dituen batzordeari jakinaraztea, aurrekontua murriztu behar zutela esan zitzaizela iaz, egokitu ahal izateko Udalaren egoera ekonomikora, eta hori egin beharrean, handitu egin dutela aurren. Udala prest dago datorren urteko antolakuntzan laguntzeko, egoera ekonomikora egokitu ahal izateko aurrekontua.

- 2014an eman zen diru-kopurua mantentzea, hau da, 2.541 euroko laguntza ematea aurtengo bestak antolatzeko.

4. J.U.S.k eskatu zuen, "Uraren Bidea"k zeharkatzen duen *Zakuto* parajearen daukan lursailean (1 poligonoko 163 partzela), alde batean balangoa (langa) konpondu eta bestean balangoa jartzea, bere egunean Udalak hitzeman zuen bezala. Eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da U. jaunari jakinaraztea "Uraren Bidea"n zenbait konponketa egin behar dituela Udalak eta balango horiek konpondu eta jartzea aurreikusia dagoela.

8. MOZIOAK.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

1. Emakumeen Mundu Martxa 1995ean “Ogia eta larrosak” izeneko lehen martxa batekin hasi zen mugimendua da, ondoren Emakumeen Mundu Martxa (EMM) izena hartu zuena. Urteetan ekimen hau nazioarte mailan emakumeen arteko aliantzak sortzen aritu da lanean, eta helburu nagusi gisa sare feminista bat sortu eta munduan nagusi den matxismoa ikusaraztea izan du.

Hainbat ekimenen artean, bost urtetik behin nazioarte ekimen bat antolatzen da eta aurtengoa IV. Nazioarteko Ekintza izango da. Azken hau, Europa osoa zeharkatuko duen ibilbide batekin gauzatuko da, martxoaren 6an Kurdistanen hasi eta urriaren 17an Lisboan bukatuko dena. Hilabete hauetan zehar EMMko hainbat kide herrialde ezberdinetan barrena ibili dira, sarea sortu eta hainbat aldarrikapen zabaltzen. Martxa Euskal Herrira irailaren 28an helduko da Tafallara eta urriaren 4a bitarte herri ezberdinak zeharkatuko ditu Bilbon azken ekimen nazionalarekin amaitu arte.

Aurten lau lan-ildo adostu dira mundu mailako emakumeen sarearen eduki eta helburuak barnebiltzen dituztenak:

- **Sistemarteko indarkeriak.** Egunerokoan mendean hartu eta azpiratzen gaituzten eta gure gorputz eta lurraldeetan egikaritzen diren opresio sistema anitzak salatzen ditugu. Pobrezia, lurraldeen desjabetzeak, gure gorputzekiko eskubideak ukatzea, indarkeria zuzen, sinboliko eta kulturalak... batera jarduten dute emakume, trans, lesbiana, migrante, aniztasun funtzional, beltz edo indigenon gorputzen aurka. Indarkeria matxistaren konplexutasuna salatzen dugu eta aldi berea oinarria ikusarazten dugu, hau da, indarkeria matxistak beste hainbat indarkeriekin batera jarduten duela zeharlerro ezberdinen bidez.

- **Bizitzaren iraunkortasuna** bizitza erdigunean jartzea da eta inola mozkin ekonomikoa edozerren gainetik lortzea helburu duen merkatuen logikaren baitan. Jendarte bat ez da justua bizitza mantentzea helburu duten eta tradizionalki feminizatuak izan diren lan horiek ikusezin egiten dituen artean. Elikadura burujabetza, lurra txikitzeari, kutsatzeari, desjabetzeari eta lapurtzeari uztea, oinarrizkoa da.

- **Gorputzak eta sexualitateak.** Gure gorputzak gure lurraldeak dira, eta beraz, haiekiko jabetza eta autonomia aldarrikatzen ditugu. Gure gorputzen eta sexualitateen jabe gara, gure generoa nahi bezala definitzen dugu eta nahi ditugun harremanak ditugu. Lesbianon, tranon, aniztasun funtzionalon edota arrazializatutako gorputzak borroka feministaren zati garrantzitsua dira.

- **Sarean lan egitea eta aniztasuna kudeatzea.** Lurralde ezberdinetatik gatozen emakumeak gara, bizipen, ibilbide, jakintza, gaitasun, identitate, borrokamodu eta aldarrikapen ezberdinekin, eta horiek defendatu, balioetsi eta errekonozitu nahi ditugu, hierarkiarik ezarri gabe. Aldarrikatzen dugu aniztasuna aberastasun bat dela, ondasun komun bat, gu batzeko balio duena, eta patriarkatuaren oinordetzarekin, emakumeak historikoki etsaitu eta banatu dituen tradizioarekin hausteko balio duena.

Udal honek Emakumeen Mundu Martxari babesa eman eta bere esku dauden baliabideekin berdintasunaren alde lan egiteko eta neurriak hartzeko konpromisoa hartzen du, helburu hauekin:

- **Indarkeriari** dagokionez, ekintza protokoloak martxan jarri, sentsibilizazioan lan egin eta indarkeria matxistari dagokion formakuntzak burutzea. Halaber, EMMren protokoloari gure babesa adierazten diogu eta indarkeria sexistaren aurkako salaketa eta deialdiekin bat egiteko konpromisoa hartzen dugu.

- Zaintzaileen **bizitzak hobetzeko** lan egitera eta zaintza lanak eratzeko zerbitzu publikoak ahalbidetzera.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

- **Aniztasun sexuala** eta genero identitatea kontuan izanik lan egitea, eta lesbofobia, transfobia, arrazismoa eta kapazitismoaren aurkako planak burutzea.

- **Emakumeen jabekuntza** sustatzea eta baita saretze eta emakume taldeen sorrerak bultzatzea.

Gure babesaren erakusten duen adierazpen hau Emakumeen Mundu Martxako Europako Ordezkaritzara bidalia izango da.

2. "Elkartasuna da herrien arteko samurtasuna". Oinarrizko printzipio bat da, gizakiak elkarbizitzarako lege eta araudiak, zuzenbidea eta irizpide etikoak sortu zituenetik. Hala ere, pertsonen nahiz herrien arteko elkartasun eza agerikoa da oso, geure mundu honetako gaitzen aurrean begiak itxi nahi ez dituenarentzat.

Elkartasunak, asmo onen bilduma hutsa izan ez dadin, bi baldintza bete behar ditu: batetik, gaiarekiko sentiberatasuna daukaten gizon-emakumeak antolatu ahal izatea; bestetik, gizarteak antolakunde horiek babestea egoki deritzen tresnekin. Udala da baldintza biak gauzatzearen erantzule, herritarren nahiarekin bat eginik.

Elkartasunezko internazionalismoak herri gisa beste herri batzuk babestea du helburu, bidegabekeriaren benetako kausen aurkako borrokan, gurea ere baden borrokan; eta beti ere kanpoko esku-hartzearen aurkako jarreratik. Hori ez da lan erraza nazioarteko egoera gatazkatsuan, non laguntza humanitarioa xantaia politiko eta militar moduan erabiltzen den.

Udal honen aldetik, ezagutzen dugu nazioarteko elkartasunaren alorrean Askapenak 28 urte luzez eramandako jarduera politiko. Brigada internazionalisten bitartez, elkartasun kanpainen bitartez, bertoko nahiz nazioarteko topaguneetan bidegabekeriaren aurka egindako salaketan bitartez etab. Askapenak herrien arteko bidezko funtzionamendu demokratikorako ezinbesteko baloreak eman dizkio euskal gizarteari.

Hemen salatu nahi dugu Askapena fiskaltzaren ilegalizazio eskaerari aurre egin beharrean dagoela, Herriak Aske elkartearekin eta Elkar Truke SL-rekin batera; baita bost militanterentzat seina urteko kartzela zigorra eskatzen dutela ere, elkartasun internazionalistaren baitan egindako lanarengatik.

Hori guztia ekubide zibil eta politikoen aurkako beste eraso dela deritzogu. Jokabide horren atzean dauden helburu politiko eta alderdikoiak salatzen ditugu. Askapenaren bitartez eta elkartasun internazionalistaren baitan euskal udalek burututako jardunari zilegitasuna kendu izana gaitzesten dugu. Espainiar fiskaltzaren erabakia Euskal Herriko gatazkaren konponbidean arduragabekeriak ipinitako oztopoa dela uste dugu.

Horrengatik guztiagatik Udal honek honakoa adierazten du:

1. Elkartasun internazionalista bultzatzeko lanean diharduten erakunde eta pertsona guztiekiko babesaren;

2. Askapena, Askapeña, Herriak Aske eta Elkar Truke-rekiko nahiz inportatutako bost euskaldun internazionalistekiko elkartasuna;

3. Askapena, Askapeña eta Elkar Trukek egiten duten lana ez oztopatzeko eskaerak;

4. W.W., G.B., U.V., A.G. eta D.S. euskaldun internazionalisten aurkako epaiketa euren absoluzioaz amaitzeko, dagozkien eskubideak itzultzeko eta zor zaien erreparazioa emateko erreklamazioa.

9. ALKATETZAREN EBAZPENAK.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Alkateak emandako ebazpen hauen jakinaren ganean geratu da Udalbatza: 2015eko ekainaren 30ekoa, “Ariztegui Bereau Izaro eta Baztarrica Arretxea Itziar” elkarteari baimena eman ziona, kontsulta zaharra erabiltzeko uztaila eta abuztuko goizetan, ludotekako zerbitzua emateko; 2015eko uztailaren 10ekoa, alkateordezkoa izendatzeko; 2015eko uztailaren 16koa, *Herriko Ostatuko* ordutegia luzatu zuena bestetarako; 2015eko uztailaren 16koa, Abarun Sociedad Cooperativari baimena eman ziona, kanpaldia egiteko *Mendaurko* presan; 2015eko irailaren 8koa, jarduerako lizentzia eta obrak egiteko lizentzia eman zizkionak “S.C. Erasun Ariztegui, M^a Trinidad y Lecaroz Erasun, Igon”i, esnetako behien ustiatagia handitzeko; 2015eko irailaren 8koa, zeinean erabaki zen, Latsagako U.E. 2ko hirigintza hitzarmenako partaideei errekeritzea Udaletxera etortzea agiria sinatzera.

10. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.

1. M.E. abokatuarekin bilera eskatzea erabaki da, dotazionalaren gaia nola dagoen argitzeko.

2. Agiri hauen jakinaren ganean geratu da Udalbatza: Nafarroako Gobernuak eman duen baso-aprobetxamenduko baimena — J.M.S.i—; Nafarroako Gobernura bidali den baso-aprobetxamenduko baimen eskaera —B.U.na; Abeltzaintzako zerbitzuak bidali dituen esplotazioen erregistroan izandako mugimenduak —J.M.M.ren baja eta L.F.en alta—; Belate eta Almandoz, Sunbilla eta Oierregiko tunelen segurtasunari buruzko txostena; Iruñako 5. Jabetza Erregistroko Ediktua, M.M.E.k lursail bat inskribatzeari buruzkoa.

11. HERRIAREN TXANDA (GALDE-ESKEAK).

Ez da galderarik egin.

Eta bertzerik ezean, 19:00ak direnean, alkate andreak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.